* Trasformando el actual servicio con inspecciones de oficio mínimo dos veces al año.

* Incrementando el número de personas dedicadas a esta labor.

* Publicando en una web oficial el resultado de estas inspecciones.

5- En el régimen sancionador:

* Elevando sustancialmente las multas por todas las cuestiones con incumplimientos de ratios, mala calidad en la alimentación o maltrato de las personas dependientes.

* Publicando en una web oficial las sanciones. ▲

Ez nire adinekoen kontura!

CELIA HERAS

Duela urte batzuk pentsaezina zen gizarte-zerbitzuak negozio hitzarekin lotzea. Ongizate-estatua eraikitzeke unea zen, eta garai hartan zerbitzu publikoen hobekuntzaz, garapen autonomikoan aurrera egiteaz, soldata-igoerak KPIaren oso gaineratik izango zituzten hitzarmenez... hitz egiten eta eztabaidatzen zen.

Garai hartan, Bizkaiak kudeaketa publikoko egoitzak zituen adinekoentzat. 1991. urtean sortu ziren azkenak Elorrioko eta Gallartako egoitzak izan ziren. Bien artean 128 ohe zituzten; Leioako eta Txurdinagako egoitzekin batera, titulartasun eta kudeaketa publikoko ia 600 ohe zituzten.

Hala ere, politikariek gizarte-zerbitzuak negozio seguruen sorgune zirela ikusi zutenean, zerbitzu horiek esku pribatuetara bideratzen hasi ziren. Zerbitzua kanpora ateratzea deitu zioten. Erabaki horren atzean, laguntza-zerbitzuen kudeaketari buruz ezer ez zekiten enpresak zeuden, eta horretarako berriak ere sortu ziren. Guztiak ere, boterean zeuden alderdien koloreen ingurukoak. Kasualitateak. Baina sistema kapitalista hain jatorra denez, ez du koloreez ulertzen, diruaz bakarrik. Eta aberats handiek, funts putreek eta Elizak, ondasun higiezinaren Estatuko jabe handiak, adreilua negozio izateari utzi diotela ikusi dutenean, beste bide batzuk bilatu eta hau aurkitu dute. Adinekoen egoitzak. Diru Publikoa, kontrol gutxi, Ikuskaritza gutxi, zigor barregarriak eta Administrazioak berak bideratzen dituen bezero seguruak.

Negozio handi horretan, herritarrekiko erantzukizunari buruz hitz egiten zaienean, Eusko Jaurlaritzak eta foru-aldundiek bidea leundu, sarrera erraztu eta beste alde batera begiratzen dute.

Bizkaiko Egoitzetako langileek ahotsa altxatu zuten eta alarma oihua egin zuten. 378 eguneko greba egin zuten, euren lan-baldintzen alde borrokan. Baina ez ziren euren baldintzak soilik. Egoiliarrenak ere baziren. Ratio egoki barik,

zainketen profesionalizazio barik, elikadura on barik, ez dago zerbitzu ona emateko modurik. Kalitatearen kontua... beste baterako utziko dugu. Eta euren borrokak Hego Euskal Herriko gainerako lurraldeetan jarraitzen du gaur egun.

Sinatzen duen emakume hau, pribatua plus bat zen kulturari bizi izan da. Ikastetxe pribatu batera joatea, mediku-laguntza pribatua izatea eta egoitza pribatu batera joatea elitekoa izatearen sinonimoa zen. Langile-klaseko jende gutxi zuen luxu hori izateko aukerarik. Ez dakit zein unetan aldatu den ikuspegia.

Orain, kontzertazioaren bidez, arlo pribaturara joatea zerbitzu prekarioa jasotzearen sinonimoa da, beste ezeren gaineratik negozioa nagusitzen da-eta. Engainu baten argazkia da. Pantailak dituzten instalazio modernoak dituzu. Bertan, pentsa dezakezuna baino hobeto zainduko zaituen profesional talde baten ontasuna saltzen dizute. Errealitatea desitxuratzen duten hitzak, bideoak, irudiak.

Argazki hori kontrastatzeko, egin ezazue zerbitzuaren erradiografia bat. Negozioaren minbizia eta metastasia aurkituko dituzue. Langile falta, lan-baldintza gehiegizkoak, enpresen eta erakundearen aldetik jasandako tratu txarrak, etab.

Eta nori axola dio? Familiek, alde batetik, diru asko ordaintzen dute behar duten eta erakundeek babesten ez dutela ikusten duten zerbitzu batengatik. Langileak oso baldintza eskaseta ari dira lanean, Damoklesen ezpata buru gainean dutela. "Dagoena ez bazaizu gustatzen, badakizu zein den aterantza doan bidea". Eta bizitzako azken etapen lasaitasuna besterik gura ez duten eta mendekotasuna edo zaurgarritasuna duten adinekoek zama hori guztia euren haragietan jasaten dute.

Ezin ditugu egoitzetan ukuiluetan utziko bagenu bezala utzi, sektore horretan nagusi diren merkataritza-kontzientzien esku. Ez langileen kontura, ez familien kontura, eta, jakina, ez adinekoen kontura. Gizakien larruarekin ezin da negoziarrik egin. ▀



Niko Cuenca Beristain, ekonomialaria

Zerga politikak eta justizia soziala

Es evidente que la política fiscal es uno de los pilares fundamentales del modelo de país desde el punto de vista de la justicia social. También existe un debate tan interesante como profundo desde el punto de vista de la transición ecológica.

Mundu honetan ezer ez da ziurra, heriotza eta zergak izan ezik". Benjamin Franklinek esan omen zuen 1789an eta, egia esateko, ez zaio arrazoirik falta. Erresuma Batuko lehen ministroaren zergak murrizteko proposamenak hondamendia ekarri zuen bertako ekonomian eta neoliberalismoaren ikur izan diren erakundeak, Nazioarteko Diru Funtsa besteak beste, aberatsenei zergak igotzearen alde agertu dira. Zergen inguruko eztabaida, hortaz, hizpide nagusi bilakatu da.

Euskal Herriako banaketa administratiboak ez du errazten zergei buruz hitz egitea. Ipar Euskal Herriari Frantziako araudiak finkatzen ditu tributuoak eta hegoaldean egoera are konplikatuagoa da. Lurralde bakoitzak zuzeneko zergak ezartzeko eskumena dauka: Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga (PFEZ), Ondarearen Gaineko Zerga eta Sozietateen Gaineko Zerga nagusiki. Zeharkako zergak, ordea, estatuak arautu eta Foru Ogasunek eta Nafarroako Ogasunak biltzen dituzte. Hego Euskal Herriari, beraz, lau ogasun propio ditugu: Nafarroako Ogasuna eta Bizkaia, Araba eta Gipuzkoako Foru Ogasunak.

PROGRESIBOTASUNEAN ATZERA

Zuzeneko zergak pertsona guztiei eragiten dietenak dira eta norberaren ezaugarrien arabera zergatzen dira: lortutako errenta eta daukaten ondarea aintzat hartuta. Zuzeneko zerga ezagunena PFEZ. Zerga progresiboa da, hau da, zenbat eta gehiago irabazi aplikatu beharreko tasa handitzen doa. Zeharkako zergek, ordea, erabilera edo kontsumoa zergatzen dute. Balio Erantsiaren Gaineko Zerga (BEZ) ohikoena da eta produktu edo zerbitzu bat kontsumitzean ordaintzen da. Tasa orokorra %21ekoa da baina badira tasa murriztua (eta supermurriztua) duten ondasunak, oinarritzkoenak batez ere. Kontua da pertsona guztiek ordaintzen dutela BEZ tasa bera, aberatsa ala errenta baxukoa izan.

Erregaien gaineko zergekin ere gauza bera gertatzen da. Zerga hauek, hortaz, ez dira batere progresiboak. Espainiako egungo zerga sistemak, 1977an ezarria, progresibotasuna du ardatz, baina azken hamarkadetan progresibotasuna galdu du. Zerga zuzenen tasak mantendu edo jaitsi dituzten bitartean, BEZa bezalako zergak igo dituzte.

2021ean Hego Euskal Herriko ogasunek diru gehiago bildu zuten zeharkako zergetan (10.188 milioi euro) zuzenekoetan baino (9.828,4 milioi euro). Hau da, diru gehiago bildu zen progresiboak ez diren zergen bidez. Justizia fiskalik ez, hortaz.

Del análisis de los datos de las Haciendas de Hego Euskal Herria cabe destacar la pérdida de importancia del Impuesto Sobre Sociedades. En 2011, representaba el 9,4% de la recaudación total. Diez años más tarde, la aportación de los beneficios de las empresas a las arcas comunes cayó al 7,3%. Una pérdida que ya venía de antes. En el caso de Bizkaia, por ejemplo, el Impuesto de Sociedades tuvo un peso del 11,3% en 2003.

Mientras la aportación de las empresas ha descendido, ha aumentado la de los trabajadores y trabajadoras a través del IRPF, así como el impuesto sobre el consumo.

Beste herrialde batzuetan zerga sistema progresiboagoa da. Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundearen (OCDE) datuek hori argi azaltzen dute. Hego Euskal Herriko ogasunek zeharkako zergen bidez bildutako euro bakoitzeko 0,96 euro biltzen dute zuzeneko zergen bidez. Proporzio hori Alemanian 1,25ekoa da eta Europako batez bestekoa 1,15ekoa. Badute, hortaz, gure ogasunek lana progresibotasuna lortzeko.

Arazoa, baina, eskumenetan dago. Zuzeneko zergak arautzeko ahalmena duten bitartean, zeharkakoak Espainiako Gobernuak ezartzen ditu eta Euskal Herriko ogasunek bildu baino ez dituzte egiten.

SOZIEATEEN GAINKO ZERGAK PISUA GALDU DU

Hego Euskal Herriko ogasunen datuak aztertuta azpimarratzekoa da Sozietateen Gaineko Zergak garrantzia galdu duela. 2011an zerga bilketa guztiaren %9,4 suposatzen zuen. Hamar urte beranduago, enpresen mozkinen ekarpena %7,3ra jaitsi zen. Galera hori lehenagotik ere bazetorren.

Bizkaiaren kasuan, esaterako, Sozietateen Gaineko Zergak %11,3ko pisua izan zuen 2003an. Enpresen ekarpenek behera egin duen bitartean langileen gaineko zergek eta kontsumoaren gainekoek gora egin dute.

PRESIO FISKALA, EUROPAKOAREN AZPITIK

Herrialde batek zergen bidez biltzen duena Barne Produktu Gordinarekin alderatzeari esaten zaio presio fiskala. Laurogeigarren hamarkadan EAEk estatu mailako presiorik altuena bazuen ere, egun baxuena duen erkidegoa da, Nafarroarekin batera. Presio fiskalaren datuak, berez, ez du ezer esan nahi. Bildutakoarekin gizartearen beharrianak asetzeko eta ongizatearen estatuari eusteko balio badu, ontzat hartu daiteke.

Kontua da zerbitzu publikoak nabarmen okertu direla azken urteotan. Euskal administrazioek, baina, zerga sistema eraldatu beharrean zorpetzea handitzera jo dute. 2008tik zorpetzea BPGaren %1etik %15era pasa da eta zorraren zama hiritar guztiek ordaindu beharko dute.

Espainiako datuei begiratuta, nabarmentzekoa da Europako herrialde aurreratuenekin dagoen aldea. 2019an Espainiako presio fiskala %34,6koa zen bitartean, Frantziakoa %45,4koa zen eta Alemaniakoa %38,8koa.

Eta askotan ongizatearen eredu erabili diren iparraldeko herrialdeekiko aldea ere nabaria da: Danimarkan %46,3 eta Suedian % 42,9koa da. Espainian lurpeko ekonomiak duen pisuari leporatu ahal zaio alde hori eta egia da azken

urteotan zertxobait murriztu dela arrakala. Aldea, hala ere, nabaria da.

FISKALITATE BERRIAREN BEHARRA

Zerga sistemak gizartearen erronkei aurre egiteko tresna behar du izan eta horrek gero eta aldakorragoa den egoerari moldatzea eskatzen du.

Trantsizio digitala eta ekologikoa hizpide dugun garai hauetan tributazio eredu berriaren inguruko hausnarketa gero eta beharrezkoagoa da. Fiskalitate berdearen inguruko proposamen asko jarri dira mahai gainean azken urteotan. Deskarbonifikazioaren aldeko apustuan elektrifikazioaren garrantzia ikusita argindarraren gaineko zergak jaitsi, hondakinen eta errausketaren gaineko tributuak ezartzea, erregaien zergatzea areagotzea, hirietan sartzeko bidesariak ezartzea eta matrikulaziorako fiskalitatea aldatzea dira aztergai dauden neurrietako batzuk. Gehien kutsatzen duenak gehiago ordaintzea dute helburu proposamen gehienek. Errenta mailaren araberako zerga sistema ezartzea ere aldarrikatzen dute hainbatek, isun eta tributuetan progresibotasuna ere isladatzeko.

Digitalizazioak eta robotika industrialaren erronka ere mahai gainean daude. Robotei tributuak ezartzea edo produktibitatearen araberako zergak diseinatzea dagoeneko aztergai dauden alternatibak dira. Digitalizazioak lanpostuen galera ekartzeaz gain zerga bilketaren murrizketan eragingo du eta horrek zergatzea birdiseinatzea eskatuko du.

Argi dago zerga politika herri ereduaren oinarri nagusietako bat dela. Justizia sozialaren ikuspegitik bada zer aldatu eta trantsizio ekologikoaren aldetik ere eztabaida interesgarri bezain sakona dago zabalik. **A**

ELA ha acordado con la dirección de Conasa la aplicación del convenio de Comercio del Metal de Navarra a toda la plantilla del soporte informático y a las futuras contrataciones. También ha conseguido que la empresa pague los atrasos y diferencias salariales correspondientes, poniendo fin a la convocatoria de huelga.

De esta manera, en negociación colectiva se han blindado las condiciones laborales del servicio del soporte informático que presta Conasa.

Este acuerdo se produce después de que el Tribunal Administrativo de Contratos Públicos de Navarra diera la razón a ELA. Una sentencia gracias a la que se consiguió que se anularan dos apartados del concurso público para adjudicar el mantenimiento del soporte informático de la Administración Foral, paralizando el proceso, tal y como exigía el sindicato.



Victoria sindical en Conasa

A efectos prácticos, el Tribunal prohíbe al Gobierno de Navarra que imponga la aplicación de un convenio laboral de ámbito estatal con peores condiciones laborales a la plantilla de Conasa, para que le resulte más barata la subcontratación.

ELA ha criticado la actuación del Gobierno de Navarra. Si la plantilla de Conasa ha conseguido blindar sus condiciones laborales, ha sido pese a los intentos reiterados del Gobierno de empeorarlas, no solo en la elaboración de los pliegos, sino también en el proceso judicial.

Desenpleguan dauden 10 pertsonatik 6 emakumeak dira, nahiz eta biztanleria okupatuaren erdia baino gutxiago izan

Irailean langabeziak behera egin ondoren, urrian 152 langabe gehiago izan dira, beraz, 143.020 pertsona daude langabezian. EAEn 65 langabetu gehiago; Nafarroan, 87 gehiago. Hala, langabezia %10,5ekoa da, Europar Batasunean baino lau puntu eta erdi handiagoa, irailean %6koa izan baitzen (azken datua).

Emakumeen artean 315 langabetu gutxiago daude; hala ere, langabeziak neurri handiagoan eragiten die emakumeei. Egoera horretan dauden emakumeen proportzioa askoz handiagoa da oraindik; zehazki, gizonak baino 23.684 emakume gehiago daude lanik gabe.

Kontratazioari buruzko datuei dagokienez, ez da hobekuntzarik ikusten. Sinatutako kontratuen %71 aldi baterakoak izan dira. Ildo horretan, Lanbideren arabera, urrian sinatutako hasierako kontratu mugagabeen %36 baino ez da izan lanaldi osokoa Euskal Autonomia Erkidegoan.

Hau da, alde batetik, langabeziak ez du behera egin azken hilabeteetan, eta, bestetik, sinatu diren lau kontratutik hiru aldi baterakoak dira, eta, beraz, esan daiteke enpleguaren kalitatea okerrera doala.



ELAk dio "lotsagarria" dela COP27 gailurrean adostu dena

ELAk uste du, larrialdi ekologikoaren eta energetikoaren dimentsioa kontuan hartuta, COP27n onartutako erabakiak "lotsagarriak" direla.

Sindikatuak deitoratu du berotegi-efektuko gasen isurketa mugatu beharrean, horiek eragindako kalteei aurre egiteko funts bat sortzea adostu izana. "Ikusiko dugu eragindako kalteen ordainketa betetzen den", ohartarazi du.



ELAk bat egin du Euskaraldiarekin. ELAk bat egin du Euskaraldiaren hirugarren edizioarekin. Azaroaren 18tik abenduaren 2ra sindikatuko liberatuen %80k baino gehiagok Ahoziki edo Belarriprest izateko konpromisoa hartu zuten.

Greba Bizkaiko gasolindegietan, abenduaren 1etik 5era. ELA, CCOO, LAB eta UGT sindikatuek greba deitu dute Bizkaiko gasolindegietan, abenduaren 1etik 5era, soldata igoerak lortzeko, akordioaren aplikazioa bermatuko duten klausulak sartzeko eta aldarrikapen plataforman sartutako beste aldarrikapen eta hobekuntza batzuk egiteko.

Vulcanizados Zuloaga enpresak 65.000 euroko kalte ordaina ordaindu beharko du greba eskubidea urratzeagatik

Bilboko Lan Arloko 10. zenbakiko epaitegiak uste du enpresak sari bat ordaindu diola plantillaren zati bati greba ez egiteagatik, eta 65.000 euroko kalte ordaina ordaintzera kondenatu du. Vulcanizados Zuloagako langileek ia urte eta erdi daramate greban, lan baldintza eskasak hobetzeko helburuarekin. 2021eko ekainaren 28an hasi zen greba automoziorako piezak egiten dituen enpresan. 40 bat laguneko plantilla du, eta zuzendaritzak hasieratik urratu du langileen grebarako eskubidea. Izan ere, enpresa estrategia izan da greban zeuden langileak legez kanpo ordezkatzeko, eta, horren ondorioz, enpresak 56.000 euroko zigorra jaso zuen maiatzean kalte moralengatik. Orain, kopuru horri beste 65.000 euroko zigorra batu behar zaio, ELAk irabazitako epaiagatik.

ELAren demanda baietsi du epaileak. Horren arabera, enpresak 500 euro ordaindu zizkien langileei uztailan, grebaren hasieran, grebarekin bat ez egiteko. Epaiak berak dioen bezala, "ondoriozta daiteke grebaren garapenean intrusiozko erabakia izan zela; izan ere, grebarik egiten ez zuten langileek plus edo pizgarri hori jasotzeaz gain, horrek

Pasaiako ELZko langileek hitzarmen propioa lortu dute, %26tik gorako soldata-igoerekin

Sei hilabeteko grebaren ondoren, Pasaiako etxez-etxe laguntza-zerbitzuko plantilla osatzen duten 44 langileek lehen hitzarmen propioa sinatu dute, soldata eta lan hobekuntza garrantzitsuekin. Hitzarmen honek 3 urteko indarraldia izango du, eta %26,3ko soldata-igoera, aldi horretan metatutako KPIa handiagoa bada gorantz berrikusteko modukoa. Lanaldi partzialak handitzeko prozedura bat ezartzen da, zerbitzu osorako kontratua.

Era berean, soldata osatzen da gaixotasun arruntagatiko bajaren kasuan. Txanda-kontratua ere jasotzen da, baita lizentzia eta baimenen bermeak ere.



“Nor gara gu pertsona bati esateko ‘ez mugitu’, ‘hor gelditu’ edo ‘gurera ez etorri’?”

Mikel Aiestaran,
gerra korrespontsala

TESTUA: IVÁN GIMÉNEZ

ARGAZKIAK: Mikel Aiestaranez utzita

Mikel Aiestaranen aurpegia eta ahotsa oso ezagunak dira. Beti urrun dago, gerrak sortzen duen suntsiketaren erdian: Sirian, Afganistanen edo Ukrainan, besteak beste. Elkarrizketa hau egin genuenean, Jerusalemen zortzi urte izan ondoren, Istanbulera lekualdatu berri zen, Aloña emaztea eta bi seme-alabekin. Bizitza-apostu garrantzitsua egin zuen orain dela urte asko, eta aurrera eramaten ari da, familiarekin batera. “Horrek ez badu funtzionatzen, ezerk ez duela funtzionatzen”, dio.



» Espero zenuen Errusiak Ukraina inbadituko zuenik?

Ez, ezta pentsatu ere. Guztiz kontrakoa uste nuen: garai hauetan, sinestezina iruditzen zitzaidan Europan halako mugimendu militar bat ikustea. Denontzat sorpresa itzela izan zen. 2014an egon nintzen Krimean, eta orduko gertakariak sorpresa handia izan ziren niretzat. Aurten, nire Kieveko lagunekin hizketan, konprobatu dut haientzat ere ezusteko zugarria izan dela Errusiaren inbasioa.

» Otsailean hasi zen gerra, eta gaur egun ez da irtenbiderik ikusten. Badirudi ez dabilela inolanean bakearen alde...

Ez dakit. Gerra honetan, beste gerra guztietan bezala, armak mintzatzen diren bitartean badirudi ez dagoela konponbiderik, baina seguru nago hasieratik negoziazioak egon direla eta badaudela orain ere. Azken finean, gerra guztiak bukatzen dira negoziazio-mahai batean, eta hau ez da ezberdina izango.

» Nondik etor daiteke itxaropen hori?

Zaila da orain esatea akordioa gertu dagoela, baina momentu batean iritsiko da. Kasu honetan, bitartekari bakarra Turkia da. Gatazkatik gertu kokatuta dago, eta Errusiarekin harreman historikoa dauka. Gainera, Turkiak interesa dauka bi aldeetan, eta hori oso garrantzitsua da. Ukrainari armak eta dronak saltzen dizkio, eta Errusiari gasa erosten dio. Aldi berean, Europar Batasunarekin eta AEBekin zubiak apurtu zirenetik, irekita geratu den zubi bakarra Istanbul da. Hori argi ikusi da zerealak esportatzeko akordioa lortu zutenean. Turkia ez dago alde batean edo bestean, oin biak ditu alde bietan, eta horrelako egoeretan halako estatuak ezinbestekoak dira.

» Galdera deserosoa izan daiteke, baina munduari komeni al zaio Errusiak gerra galtzea, horrek izan ditzakeen ondorioak ikusita? Ez al da arriskutsuegia?

Ez dakit. Agian politikari edo enpresa batzuei ez zaie komeniko, baina munduari edo gizakiari inoiz komeni ez zaiona da gerra bat, ez Ukrainan, ez Perun, ez inon.

Gerra guztiak desastre hutsak dira. Hemen interes politikoak eta ekonomikoak nonahi daude, eta nik neuk ez dut gauza askorik ulertzen. Hala ere, Mendebaldearen arerio historikoa Errusia izan da,

“Turquía no tiene un pie a cada lado del conflicto, tiene ambos pies a ambos lados. Y en este tipo de situaciones esta clase de países son esenciales”.

eta pentsa daiteke komeni zaiola gerra hau Errusiak galtzea, edo behintzat ahultzea.

» Errusiak gerra galdutzat emango balu, botoi nuklearra sakatzeko tentazioa izan dezake?

Putin zer egiteko gai den ez dakigu, berak baino ez daki. Mehatxu nuklearra egon badago eta niretzat oso argia da. Horren froga da nire lagunekin ditudan mintzagaietako nagusia bihurtu dela. Orain arte, Kieveko lagunengan ez dut mehatxu hori hain argi somatu... Hori esanda, komunikabideetan ‘amarillismo’ puntu bat ikusten ari naiz, eta hori onartezina da. Gai hain larria izanik, ezin da banalizatu. Hitz oso potoloak dira, munduan gerta daitekeen gauzarik larriena da, eta oso modu arinean mintzatzen da horretaz.

» Hedatzen den azalpena da Putin burutik jota dagoela. Ez al da azalpen sinpleegia gerra esplikatzeko?

Burutik jota edo ez? Ez dakit, baina garai hauetan inbasio militar bat abiatzea ez zait erabaki logikoa iruditzen. Badirudi bere jarraitzaileentzat logikoa dela. Errusia arriskuan dagoela, NATO hedatzen ari dela euren ateetaraino... Arrazoi horiek erabiltzen dituzte gerra justifikatzeko. Hala ere, niri inbasio hau gehiegikeria iruditzen zait.

» Nola da Ukrainako eguneroko bizitza, batez ere frontetik urrun?

Egia da orain frontea ekialdean eta hegoaldean baino ez dagoela, baina gerra egoera somatzen da herrialde osoan. Hasteko, zenbat jende hiltzen ari den egunero ikusita... Familia gehienetan norbait hil da, eta horrek eragina dauka Ukrainan zehar.

Bestalde, azken asteotan Errusiak bultzatu ditu planta energetikoen aurkako erasoak, eta horren ondorioak

“La amenaza psicológica tiene un gran efecto sobre la gente. Lo he visto en Kiev y en Odessa: todo parece tranquilo y, de repente, se produce un ataque ruso para recordarnos que estábamos en guerra”.

edonon somatzen dira. Azken finean, Errusiak ikusi du baduela gaitasuna Ukrainako edozein lekuetan min emateko. Eta mehatxu psikologiko horrek eragin handia dauka jendearengan. Nik ikusi dut Kieven edo Odessan: dena lasai zegoen, baina bat-batean eraso errusiar bat gertatzen zen, gogorarazteko gerran geundela.

Itxuraz lasaitasuna egon daiteke hiri batzuetan, baina gerra oso, oso presente dago.

» Bertan daukagu atxilotu bat, Pablo González kidea. Nola ikusten duzu bere egoera?

Atsekabez. Jakin nahi dut zer gertatu den. Atxilotu zutenean ni bere zain nengoen. Elkarrekin geunden Polonian eta nik Ukrainera pasatzeko aukera izan nuen. Beste aldean elkartzeko hitzordua egin genuen, baina Pablo ez zen inoiz iritsi. Orduetik hona 10 hilabete preso eman ditu, inolako azalpenik gabe, lotsagarria da.





“Siempre ocurre algo en Oriente Próximo, y muchas veces para mal. Hay que estar aquí, los conflictos de esta zona marcan la agenda informativa global”.

» Zer iruditzen zaizu Estatu espainiarraren diplomazioaren papera afera honetan?

Tira, gai oso potoloa da. Horrelako kasuetan, diplomazia-lana isilean egiten da. Mahai batean edo bestean kontaktuak daude, baina ez eremu publikoan.

Polonian espioitzaren akusazioa oso larria da, are gehiago gerra egoera batean, ez da txantxa... Egoera konplexua da, eta tentuz ibili behar da. Edonori gertatu ahal zaio, niri ere, orduan atera kontuak.

EKIALDE ERTAINEKO ADITUA

» Zerk erakarri zintuen?

Bi arrazoi daude. Alde batetik, oso seguru sentitzen naiz bertako jendearekin, beti lagundu didate. Eta beste alde batetik, nik azken orduko albisteak jorratzen ditut, eta Ekialde Ertainean beti gertatzen da zerbait, zoritxarrez askotan.

Egon beharreko tokia da, bertako gatazkek munduko agenda informatiboa markatzen dute.

» Palestina-Israel al da munduko korapilo nagusia?

Agian bai, baina hori ere oso etsigarria izan da niretzat. Zortzi urte bertan izan eta gero, alde egin nuenean

neure buruari galdetu nion ea egindako lanak zeozertarako balio izan zuen. Guk salatu ditugun okupazioaren ondorioek bere horretan jarraitzen dute, edo okerrago.

»Nola ikusten duzu Israel?

Munduko parte horren herrialde indartsuenetariko bat da, influentzia oso handia daukalako. Barrutik ikusi dut, eta niretzat master bat izan da. Horren menpe egotea oso gogorra da palestinarrentzat, baina gutxienez Israel arerio gisa dutenez, horren inguruan hitz egiten da mundu mailan, gai horretaz informatzen da, eta ez da gatazka ahaztu bat bihurtu, beste kasu askotan gertatu den bezala.

»Palestinako aferak badu konponbiderik?

Borondate politikoa baino ez da behar. Akordioak aspalditik sinatuta daude...Bain Israelek ez du nahi.

»Eta nola egin?

Errealitatetik abiatuta, bi estatu egotea fikzioa da. Estatu bakarra dago: Israel. Palestina, estatu bezala, ez da existitzen, ez dauka inolako autonomiarik, Israelen menpe dago erabat. Bi estatu izateak ez dauka etorkizunik, aukera hori galdu zen aspaldi. Estatu bat dago, Jordan ibaitik Mediterraneoraino doana, eta era demokratiko batean antolatu beharko da, muga horien barruan bizi diren guztiekin. Ez dago besterik: estatu judutarra edo demokratikoa, baina inondik inora ez bi estatu...

Orain estatu judutarra da, ez demokratikoa. Israelek ez dauka mugarik, ez konstituziorik, esku libreak izateko. Azken arrazoia beti erlijioan kokatzen dute, 'herri hautatu' gisa; orduan, ez dago ezer negoziatzerik.

»Palestina-Israel gatazkarekin konparatuta, badaude gerra ahaztu asko munduan...

Bai, begira Siria, erabat ahaztu zaigu. Edo Afganistan. Orain berriro agertu da, baina 10 urtean ezin izan dut Afganistanen inguruko informazio bakar bat ere kolokatu...



GALDETEGI PERTSONALA

» Miresten duzun kazetari bat:

Ramón Lobo (orain gaixorik dago, minbiziak jota).

» Ekialde ertaina ulertzeko liburua:

Eugenio García Gasconen edozein.

» Txina ulertzeko liburua:

Ezinezkoa da. Txina edo India ulertzeko bertan bizi behar da.

» Zure unerik gogorrena:

Sirian. Oso arriskutsua zen han lan egitea.

» Amaiera zoriontsu bat:

Libanon, 2006an, su-etena iritsi zenean.

» Hiri bat bizitzeko:

Istanbul.

» Hiririk okerrera bizitzeko:

Beirut.

» Non egongo da Mikel Aiestaran hemendik 10 urtera:

Bosforo ez da leku txarra. Baina erabakia ez da nirea bakarrik, familiarrena ere bada.

“Palestina como estado no existe, no tiene ninguna autonomía, está completamente bajo el dominio de Israel. La solución de los dos estados no tiene futuro. Ese momento pasó hace mucho tiempo”.

“Podemos decir que la censura está desapareciendo. Hoy en día es casi imposible esconder un hecho; de una forma u otra va a salir a la luz”.

Inori ez zitzaion interesatzen, berriro talibanak agintera itzuli arte. Hor daude Yemen, Sahara...

»Orokorrean, baina nazioarteko gaietan ere, ez al daukagu informazio gehiegi, eta oso bat-batean jasotakoa? Ozeano horretan orientatzea gero eta zailagoa izaten ari da.

Bai, datu asko iristen zaizkigu, eta horri zentzua eman behar diogu. Horretarako denbora behar da, eta asko irakurri. Aldiz, esan dezakegu zentsura desagertzen ari dela. Gaur egungo munduan, ia ezinezkoa da gertakari bat ezkutatzea. Modu batetik edo bestetik, agertuko da.

»Gertatzen ari denaren aurrean, kazetariak neutrala izan behar du?

Gehienetan, neutraltasuna mantentzea zinismo ariketa da. Israel eta Palestinaren arteko gatazkan, hain desorekatua izanik, neutrala izatea zer da? Zinismo hutsa da. Gauzak azaldu behar dira diren bezala. Kazetariak ez gara aktibistak edo kooperanteak, baina egia kontatzen badugu, ezin gara neutralak izan.

»Presio handia jasaten duzu gatazka larri baten erdian?

Gero eta gutxiago. Garai batean, kazetariak ginen errealitate edo iritzi bat ezagutarazteko bide bakarrak, baina orain edonork lor dezake hori Telegram kanal batekin. Talibanekin konturatu naiz. Euren lehen gobernuan, orain dela 20 urte, kazetari mitiko batzuk talibanen elkarrizketak argitaratu zituzten, Kabulén sartzea oso zaila bazen ere. Talibanek kazetariak behar zituzten orduan. Gaur interneten bidezko izugarritzko kanalak dituzte, eta ez gaituzte behar. Ez gara hain garrantzitsuak.

‘FREELANCE’ KAZETARIA, PREKARIOA IZATEKO MODU BAT

»‘Freelance’ kazetari bezala egiten duzu lan eta ez dakizu zenbat kobratuko duzun datorren hilabetean. Prekaritatea al da hori?

Hasi nintzenean, *freelance* izatea oso erromantikoa zirudien, baina errealitatea oso bestelakoa da: hileroko fakturak, familia





gastuak, etxearen alokairua... Gainera, bizi dugun komunikabideen krisi garai honetan, adarretatik moztzen hasiko dira eta nik urrunen dagoen adar batean lan egiten dut...

Azken urte hauetan, ez dut prekaritatea sufritu, lana iturri ezberdinetatik lortu dudalako, baina ziurgabetasuna sentitzen dut. Datorren hilabeteen, adibidez, ez dakit zer gertatuko den. Dena den, nik azken 15 urteotan bizitakoa izugarria da, eta familiarekin gainera... Ez nuke ezeren truke aldatuko.

»Azken urteetan, familiarekin batera Jerusalem bizi izan zara. Baina orain dela gutxi Turkiara, Istanbulera hain zuzen, aldatu egin zarete. Nolako izaten ari da aldaketa hori?

Jerusalen ez da leku erraza. Zatiketa gehiegi daude eta, seme-alabei dagokionez, gure aukera bakarra izan zen nazioarteko eskola batetara eramatea. Ez genekien zenbat denbora emango genuen Jerusalem eta ez genuen nahi eskola judutar

edo palestinarrean sartu. Orain, Istanbulen, errazagoa izaten ari da.

»Eskolan ingelesez, baina etxean?

Euskaraz, hori bermatuta dago, ama eta aita euskaldunak garelako.

»Eta zure bikotekidea, nola moldatu da bizitza horretara?

Niretzat hori da garrantzitsuena. Etxeak ez badu funtzionatzen, ezer ez da ongi joango. Emaztea erizaina da, oso lan inportantea, eta Gazan ibili da lanean, Medicus Mundi eta Mugarik Gabeko Medikuak erakundeetan, eta Palestinako anbulategi batean, adibidez.

»Gaurko kazetariak, batez ere komunikabide ezberdinetarako lan egiten dutenek, marka pertsonala behar dute euren lekua lortzeko?

Bueno, ni prest nago komunikabide baten plantillan lan egiteko. Nahi baduzue, kontratatu ahal nauzue ALDAn lan egiteko... Gauzak aldatu dira. Munduko




beste puntan kazetari lan egiteko komunikabide bakarrarekin ez da nahikoa. Baina nik aukera daukat informazioak lantzeko lerro editorial desberdinak dituzten hedabideetarako. Eta nahiko errespetatua sentitzen naiz leku guztietan.

» Baina Mikel Aiestaran bada norbait...

Agian nire marka propioa lortu dut, baina neurri batean komunikabideei esker izan da, konfiantza eman didatelako. Marka propioa izatea gero eta garrantzitsuagoa da, batez ere sare sozialen eraginez. Jendeak behar du pertsona bat telebistan ikusi, edo kazetari baten kronikak irakurri, eta hori Mikel Aiestaran da, El Correon edo ETBn edo beste hedabide batean. Kazetari baten sinesgarritasuna hor dago, eta lortzea oso zaila da.

» Urte hauetan oso gertutik ikusi ahal izan duzun fenomeno da migrazioarena. Zein da zure enfokea?

Munduan zehar, mugimendu etengabea da, eta horren adibidea Istanbul da. Familiarekin Turkian sartu nintzenean, aluzinatuta geratu nintzen hainbeste jende ikustean erresidentzia baimena eskatzen. Herri askotarikoak ziren, aniztasun izugarria zegoen. Aldiz, Euskal Herria irla bat da, lehen-lehen munduan, eta joaten naizen bakoitzean konturatzen naiz jendea ez dela kontziente garenaz eta daukagunaz, gure bizitzakalitatea nolakoa den... Nor gara gu pertsona bati esateko 'ez mugitu', 'hor gelditu' edo 'gurera ez etorri'? Ez didate arrazoi bat eman gerratik edo pobreziatik ihesean dagoen norbaiti nire herrira etortzea debekatzeko. Nor naiz ni harresiak eraikitzeko? 

“La amenaza nuclear está ahí, y para mí es muy clara. Sin embargo, veo mucho amarillismo en los medios de comunicación, y eso me parece inaceptable. No se puede banalizar un tema tan grave porque, de darse, sería terrible para la humanidad”.



Mikel Aiestaran Aierra (Beasain, 1975)

¿Corresponsal de (pos)guerra?

I.G.



Cuando Mikel Aiestaran Aierra (Beasain, 1975) inició la carrera de Periodismo en la Universidad de Navarra no estaba pensando en ser corresponsal de guerra. Fue en sus viajes como mochilero por Oriente Medio cuando se abrió paso en su cabeza la opción de dedicarse a informar de los conflictos que continuamente asolan la región, y decidió dejar su puesto fijo en El Diario Vasco, adonde llegó después de trabajar como maquettador en un periódico de Ceuta.

Una de sus primeras coberturas, un poco improvisada, fue el terremoto de Bam (Irán) en 2003, con un ordenador que le prestó la ONG Informáticos Sin Fronteras. Luego, por otra casualidad, acabó informando del huracán Katrina en Nueva Orleans, y en otro giro del destino, un iraní que conoció en Sanfermines le invitó a ir a Beirut, donde le sorprendió el bombardeo israelí que dio inicio a la guerra del Líbano, en 2006.

Así, como sin querer, se hizo corresponsal de guerra Mikel Aiestaran... A día de hoy trabaja con numerosos medios de comunicación (Grupo Vocento y EITB, principalmente) y ha publicado un puñado de libros sobre los temas que mejor conoce: *Guerras de ayer y de hoy* (con Ramón Lobo, 2016), *Gaza, cuna de mártires* (2016) *Oriente Medio, Oriente roto* (2017), *Ekialde Hurbila, muinak eta ertzak* (con Ane Irazabal y Karlos Zurutuza, 2017), *Las cenizas del califato* (2018), *Jerusalén, santa y cautiva* (2021)...

Cuando habla de su trabajo, del periodismo o de las guerras que ha conocido, aporta su punto de vista, claves que pueden explicar la realidad y rechaza la neutralidad como un modelo a la hora de informar. Sin embargo, es consciente de que no tiene todas las respuestas y de que debe seguir buscando. Su entusiasmo por el oficio tampoco le nubla el criterio a la hora de reconocer que “el periodismo no sirve para mucho; no somos tan importantes”.

Pero Mikel Aiestaran sigue adelante, ahora con Estambul como campo base (durante ocho años ha estado instalado en Jerusalén), siempre con el objetivo de informar, también, sobre aquellos lugares donde quizá callaron las armas pero no se solucionaron los conflictos. ¿Un corresponsal de posguerra? Será una pregunta para otras entrevistas. **A**

“Europa no pinta nada en la batalla por la hegemonía mundial”

Yago Álvarez Barba, (@EconoCabreado),
activista y coordinador de la sección
de economía del diario El Salto

NEREA ISPIZUA

» ¿Qué diagnóstico haces de la situación económica de España y de la UE?

Últimamente soy bastante pesimista. La inflación ahora mismo es la principal batalla económica y cultural. Parece que la inflación, la deuda y el déficit son las tres principales preocupaciones y nos estamos olvidando de que muchas veces esa deuda y ese déficit vienen de un gasto público, de una inversión pública en esas políticas contracíclicas que son las que acaban sacando de la crisis o, por lo menos, manteniendo las rentas durante las crisis. Figuras como los ERTes o el Ingreso Mínimo Vital ayudan a mantener las rentas de las personas más desfavorecidas y también dan impulso a la economía.

La subida del IMV que ha sufrido el Estado español durante los últimos 4-5 años y el incremento del gasto presupuestario en los años 2020 y 2021 son, sin duda, los dos cambios más importantes que ha sufrido el país desde un punto de vista macroeconómico; incrementar rentas mínimas y dejar atrás la austeridad o, por lo menos, dejar atrás la idea de que en una crisis se debe aplicar austeridad, que fue lo que se hizo en la anterior y que supuso un auténtico desastre.

El resultado es que, a pesar del *shock* de la economía, estamos teniendo mejores cifras de empleo. Al final,

esa teoría de que hay que sacar a lo público de la economía para dar un mayor espacio a lo privado hace aguas por todos los lados.

» Te vamos a pedir un ejercicio de clarividencia. ¿Qué escenarios prevés para 2023?

El próximo año pueden pasar varias cosas, y todas son malas. Por un lado, la fuerte subida de los tipos de interés. Si el Banco Central Europeo imita a la Reserva Federal y sube los tipos tan bruscamente como los han subido ellos, vamos a una recesión de cabeza. Esa subida de los tipos de interés va a tener, por otra parte, un efecto nefasto sobre las personas que están pagando sus hipotecas.

Hemos asistido a algo que no ocurría desde el año 2002, que es la paridad euro-dólar. Habrá empresas —en el País Vasco, por ejemplo— a las que esa paridad les habrá podido venir bien por el tema de las exportaciones, pero tenemos el problema del precio de la gasolina. El barril de Brent se compra en dólares. El precio de la gasolina no baja aunque baje el precio del barril por la golfería de las petroleras y refinerías, pero otra de las razones está en la debilidad del euro: comprar los barriles de Brent sale mucho más caro.

Por otro lado, esa subida de tipos de interés va a provocar un incremento tanto de la deuda privada como de la pública. En estos momentos los presupuestos generales del Estado destinan al pago de los intereses de la deuda pública 30.000 millones



“Europako Banku Zentralak Erreserba Federalak bezala jokatu eta interes-tasak hark bezain azkar igotzen baditu, zuzenean atzeraldira goaz. Bestalde, interes-tasen igoerak kalte latza eragingo dio hipoteka ordaintzen ari den jendeari”.

de euros, con los tipos de interés en mínimos históricos desde 2012. Si ahora los tipos de interés suben, la prima de riesgo sube, la deuda española va a crecer... Eso supondrá que en los próximos Presupuestos Generales del Estado, la partida al pago de intereses de la deuda aumentará. Y eso provocará que se constriña el gasto público que, como decía antes, es el que mueve la maquinaria.

Y luego está el gasto privado, determinado por el euribor. Los que tengan una hipoteca a tipo variable en la próxima revisión van a sufrir subidas de cuota y, por

ende, menor capacidad de consumo de las familias, lo que supone un frenazo de la economía, del consumo, que nos puede llevar a una recesión bastante fácilmente.

Si la Reserva Federal sube los tipos de interés a final de año 1,5 ó 2 puntos, que significa que el euribor estará en el 4, eso es una recesión asegurada.

» Sigamos con previsiones. ¿Cómo crees que va a evolucionar el tema energético?

No hace más que hablarse de la guerra de Ucrania y de Rusia, pero eso está tapando que estamos en la antesala de una verdadera crisis energética. Por un lado, porque el planeta no para de aumentar su demanda de energía y, por otro, porque se están agotando las fuentes de energía no renovables.

Y esto está englobado en la crisis climática que vivimos. Se está centrando el debate en la guerra y me da miedo de que nos olvidemos de que el petróleo se está acabando. Repsol ya anunció hace unos años que no iba a buscar más petróleo porque no le salía rentable; está haciendo su transformación ecológica por motivos de interés económico.

Tenemos que tener en el horizonte que vamos a un mundo de energía cara. Y vivimos en una sociedad que se ha basado en una energía barata. Y cuando digo sociedad, incluyo a la industria.

» El ejemplo alemán es evidente.

Un caso que me está pareciendo fascinante es el alemán. Un país que en los últimos 40 años siempre exportaba más que importaba, en julio, su balanza comercial fue negativa. Alemania ha tenido gas ruso, gas de Ucrania. Ha basado su economía y su industria en energías que le salían bastante baratas. Pero ahora vemos la fisura de ese modelo.

Y si gripa el motor de Europa, que es Alemania, imagina lo que nos puede pasar al resto con el tema energético. A medio-largo plazo vamos a tener que pensar en un cambio estructural económico, que va a ser muy doloroso. Y a corto plazo, siguiendo con el tema energético, ojo como Putin cierre la llave.

» En Europa la situación es preocupante. Y en el mundo la crisis de la deuda se está llevando a países enteros por delante.

Asistimos a una crisis de deuda mundial. Estamos viendo a Sri Lanka en quiebra, Ucrania ha pedido una



reestructuración de su deuda, Líbano, El Salvador... Hay en estos momentos 10 ó 15 países que están rozando la quiebra; países del Sur, todos.

Si quiebran estos países y empiezan a arrastrar a otros países y a otros acreedores, el futuro se presenta complicado.

El Fondo Monetario Internacional tiene un papelón por delante. Habrá que ver cuál es la deriva del FMI porque en el próximo lustro nos vamos a encontrar con quiebras de países.

» **Es curioso que la deuda privada haya disminuido mientras la pública ha aumentado, ¿no?**

Así es. La deuda privada de las familias y las empresas ha ido disminuyendo desde el año 2008. Lo que se ha incrementado es la deuda pública de los países. Y el gran elefante en la habitación es China. China tiene una burbuja inmobiliaria impresionante, y eso puede ser el principio del fin. Y si China sufre una crisis importante arrastra al resto del planeta.

Y no digamos si empiezan con medidas proteccionistas para salvarse. Tenemos el aprendizaje de lo que ha ocurrido en India: quisieron aprovechar que Ucrania dejó de exportar cereales por la guerra y se dedicaron a vender y vender; el incremento de la demanda supuso una subida de precios hasta el punto de que la propia población india no podía pagar esos cereales, no podía comer. Finalmente, el gobierno indio decidió cortar las exportaciones.

También podemos ir a un proceso de desglobalización, que suena bien, pero que va a ser bastante doloroso.

» **En muchas de tus intervenciones y análisis has mostrado tu preocupación por la subida del precio de los alimentos y las hambrunas que puedan derivarse de ello.**

El tema hambre en los países del Sur va a ser una realidad muy dura porque el precio de los cereales y de los alimentos básicos va a duplicarse. De hecho, ya se han duplicado, y puede que suban más. En este contexto, habría que hacer una intervención de la Bolsa de Chicago, que es la que comercia con los alimentos. Hay que intervenir los precios de la alimentación a nivel mundial.

Pero claro, dile al FMI que haga esto. Lo hará cuando mueran millones de personas. Yo creo que las líneas tienen que ir por ahí: una intervención de la economía a nivel mundial en cosas tan básicas como la alimentación.

» **Esos países, además, suelen estar ahogados por el pago de la deuda externa.**

La gente de Eurodat está trabajando en una propuesta de mecanismos de parálisis del pago de todo tipo de deuda cuando un país llega a una situación como la de Sri Lanka. Deben establecerse unos parámetros que definan la situación de riesgo humanitario y, a partir de ahí, que se cancelen los pagos de la deuda externa.

El FMI debería de tener un fondo para este tipo de situaciones. Igual el FMI reacciona cuando caigan 4 ó 5 países y se produzcan hambrunas, muertes, movimientos migratorios masivos... Es posible que veamos estas situaciones en las próximas décadas.

» **¿Cómo se está situando la UE en la guerra geopolítica por la hegemonía mundial?**

La UE se está quedando muy atrás.

Gran parte de las turbulencias que estamos viviendo están provocadas por una situación de cambio de la

“Benetako energia krisi baten atarian gaude. Batetik, planetaren energia eskaria etengabe hazten delako, eta bestetik, berriztagarriak ez diren energia iturriak agortzen ari direlako. Hau kokatzen da bizitzen ari garen klimaren krisian”.



“Gosea Hegoaldeko herrialdeetan izugarrizkoa izango da, laboreen eta oinarrizko elikagaien prezioa bikoiztu egingo delako. Izan ere, dagoeneko bikoiztu dira, eta litekeena da areago garestitzea. Horrenbestez, Chicagoko burtsan esku hartu beharko litzateke, han egiten baita elikagaien salerosketa. Baina zoaz eta esan NDFari hori egiteko. Milioika lagun hiltzen direnean egingo du”.

hegemonía mundial. En estos momentos asistimos a una guerra comercial entre EEUU y China. China está adelantando ya a Estados Unidos. Y cuando finalmente lo consiga habrá una división global en el planeta. Los países del Sur, en este momento, se decantan por China.

Y la UE es el campo de batalla donde asiáticos y estadounidenses se pelean por los clientes y por los datos de los europeos.

Somos todavía el continente con la mayor renta per cápita, tenemos todavía mucho dinero, mucho ahorro y mucha inversión, somos consumidores natos... pero nos estamos quedando detrás en I+D, en industria, en tecnología, datos... porque hemos deslocalizado todo. Europa en tecnología no tiene nada, ni una sola gran empresa.

Las grandes batallas internacionales se dan entre el Google americano y el Google chino; el Uber con el Uber chino; Facebook contra Tik-Tok... Al final se trata de una guerra por los datos.

Se está hablando mucho, y puede que lo veamos, de las fusiones bancarias intrafronterizas, por ejemplo, que haya una fusión entre el Santander y el Deutsche Bank e ING para crear un gran banco europeo que pueda competir con los bancos chinos y estadounidenses. Pero, a pesar de todo, llegamos tarde.

Llegamos tarde también con los materiales “raros”: con el litio, con las baterías eléctricas, los microchips... Europa, como buena potencia colonialista, formada por estados colonialistas, se ha dormido en los laureles y ahora se da cuenta de que en esa batalla por la hegemonía mundial no pintamos nada.

» ¿Hay movimientos sociales ahora mismo con la fuerza necesaria para plantar cara a las decisiones antisociales que se están adoptando?

En mi opinión, los dos únicos movimientos capaces de aglutinar gente en este momento son el ecologismo y el feminismo, y no creo que diga nada nuevo.

Hay que buscar la interseccionalidad de ambos movimientos porque está totalmente ligado el cuidar de la tierra y el cuidar de las personas. Y hay que aplicarle conflicto social. Hay que buscar conflictividad y empezar a promover otro tipo de organizaciones sociales, otros tipos de presión política que puedan dar pie a otro tipo de políticas diferentes a las que estamos acostumbrados.

Como activista que soy me da pena ver que los movimientos sociales están prácticamente muertos. Además, durante la pandemia parecía que había un movimiento de poner en valor lo público, el estado de bienestar, la inversión en los cuidados, etcétera... pero ahora me da la impresión de que, con esto de la inflación y la subida de la cesta de la compra, la gente se está olvidando de aquellos valores que estaba reivindicando.

» ¿Y dónde queda el sindicalismo?

De entre los movimientos sociales que están surgiendo, me está pareciendo muy interesante el tema de las nuevas formas de sindicalismo que están luchando contra las nuevas formas de capitalismo.

Tenemos la experiencia de la economía de plataformas y de los Riders por derechos: gente que ni siquiera tenía un centro de trabajo, que están en bicis por las plazas, han conseguido crear una red, han logrado una sentencia del Supremo, y han forzado al Ministerio de Trabajo a regular su situación por ley. Tiene un mérito enorme.

Los sindicatos tenéis el reto de adaptaros a las nuevas formas de precariedad e intentar acoplar esas luchas a las nuevas formas de capitalismo porque vivimos un turbo capitalismo que acelera las formas de explotación.

También me parece muy importante que los sindicatos retomen la lucha por la reducción de la jornada laboral. Llevamos cien años con la jornada de 40 horas, con un paro estructural gravísimo en todos los países. La reducción de la jornada laboral, vivir más y trabajar



menos, es una idea que engancha a todo el mundo y que se puede realizar de muchas maneras: ya sea trabajando menos horas cada día o trabajando menos días a la semana, como se propone con la semana laboral de 4 días...

Vivir más y trabajar menos en unos momentos en los que los márgenes empresariales siguen creciendo y la gente sigue estando en una situación tan precaria es una línea discursiva que enlaza muy bien tanto con el movimiento feminista (en la medida en que hay más tiempo para los cuidados) como con el movimiento ecologista (también hay menos desplazamientos, menos contaminación), y se acopla bastante bien, también, con el movimiento laboral y socioeconómico por el que estamos avanzando.

Yo me alegro mucho de que haya sindicatos como el vuestro, con mucha fuerza en vuestro ámbito, y también me alegro de que aparezcan esos pequeños champiñones como los Riders Por Derechos, porque están mostrando otra manera de conflictuar con el Gobierno, distinta a la de los dos grandes sindicatos, UGT y CCOO.

No diría que el viejo sindicalismo ha muerto, pero a veces ayuda poco, la verdad.

» **Este turbocapitalismo del que hablas supone, sin duda, importantes retos para un movimiento sindical que quiera plantar cara...**

Las transformaciones tecnológicas aplicadas al mundo laboral van a crear grandes conflictos. Se habla mucho de la digitalización desde una perspectiva positiva pero muy poco sobre sus efectos sobre los derechos laborales.

Y la línea que está llevando la UE y que se calca en el “España Puede” (plan de los fondos europeos en el Estado español) es demasiado tecno-optimista, demasiado positivista en torno a la creación de empleo... Se dice que por cada millón de euros de fondos se va a crear un empleo en cualquier tipo de industria, por ejemplo, en Renovables. Con el 5G afirman que van a crear 5 veces más. Y yo me pregunto: ¿de dónde sacan esa cifra? Multiplican por 5 las expectativas de creación de empleo por euro invertido. Y gran parte de los puestos de trabajo que dice el Gobierno que va a crear con los 70.000 millones de euros de fondos es del 5G y de la digitalización, pero no contabilizan ninguno de los que se van a perder.

Esto es brutal. Estamos invirtiendo un montón de dinero para cambiar la economía sin tener en cuenta ni los derechos laborales ni el desempleo. Yo creo que



“Europak, potentzia kolonialista petoa den aldetik, estatu kolonialistek osatua baita, bertan goxo egin du eta orain ohartu da munduaren hegemonia lortzeko lehia ez daukala zer eginik”.

estas cuestiones van a crear bastante conflictividad en los próximos años.

» **La digitalización ya está aquí y está creando problemas laborales graves.**

El sindicalismo alemán, históricamente muy fuerte, está metiendo mucha presión con el tema de la digitalización. Están presionado mucho para que el reparto de los beneficios por la mejora de la productividad beneficie también a la clase trabajadora. Si metes una máquina que sustituye a 10 trabajadores, la empresa está obligada a recolocar a parte de esos trabajadores y pagar el reciclaje profesional de otros en otra profesión. La digitalización debe ir acompañada de medidas sociales.



» Volviendo a la batalla cultural de la inflación. ¿Qué medidas propones para rebajar la inflación?

Se habla mucho de los paquetes de medidas anti-inflación y prácticamente ninguna de las medidas ataca la inflación. Lo que hacen es facilitar un poquito la vida a las personas más desfavorecidas.

La única medida efectiva que ha hecho este Gobierno para bajar la inflación es poner un tope al precio del gas. Y creo que debería enseñarnos el camino: la limitación de precios. Si los precios energéticos son los que están empujando la escalada de los precios, hay una clara solución: Poner un límite al precio de la luz y de los carburantes. Topar precios es la única solución que yo veo para atajar la inflación.

Otra medida sería bajar el IRPF a las rentas más bajas. Yo no subvencionaría, la medida debería de ser poner precios máximos.

» ¿Qué opinas del Pacto de Rentas?

El maldito eufemismo del Pacto de Rentas... De lo que hablan, en realidad, es de bajar salarios, cuando los

“Nire ustez, jendea elkartzeko gauza diren mugimendu bakarrak oraintxe ekologismoa eta feminismoa dira. Aktibista naizen aldetik penaz ikusten dut mugimendu sozialak ia hilda daudela”.

salarios están estancados desde 2008, mientras que los beneficios de las empresas no paran de crecer. El Pacto de Rentas es un engaño, una mentira. Lo que habría que atacar son los márgenes de beneficios empresariales.

» ¿Qué otras medidas debería adoptar el Gobierno español para paliar el impacto social del alto precio de la energía?

El Gobierno de España debería de estar ahora mismo poniendo placas solares en absolutamente todos los edificios públicos y subvencionando su instalación en edificios, casas privadas y en la industria. Y hay dinero para ello, porque los fondos Next Generation son para la transición justa.

De la distribución de los fondos Next Generation también podría hablarse mucho. A pesar de la poca transparencia existente en torno a quién está recibiendo esos fondos, se sabe que gran parte de ese dinero lo está recibiendo Adif, para infraestructuras. Puede estar bien el AVE a Extremadura o remodelar tramos de la red ferroviaria... pero eso no es una transición ecológica.

Siguiendo con incoherencias, la UE vuelve a apostar por la energía nuclear y el carbón. Se está realizando un *green washing* escandaloso; me parece una locura.

» El debate fiscal está nuevamente encima de la mesa. ¿Qué medidas habría que tomar, en tu opinión?

Si me dejaran de ministro de Hacienda, iban a temblar las empresas. Yo pondría un impuesto casi confiscatorio a los beneficios excesivos, algo que ya hizo EE.UU. en la Segunda Guerra Mundial y en la Guerra de Vietnam. Sobre todo cuando son unos beneficios caídos del cielo, simplemente porque el sistema de fijación de precios está hecho a medida de las grandes empresas.

Otra medida que me parece interesante sería reducir un poco los tramos del IRPF de las zonas bajas, quitando un puntito a la gente que gana menos de



25.000 ó 30.000 euros, y se lo subiría a los que ganan más de 300.000 euros, para compensar. Al pobre es al que de verdad le afecta la inflación.

Por supuesto, estoy en contra de eliminar el impuesto de patrimonio. Ahora mismo estamos en tiempos de guerra y habría que grabar mucho más a quienes más tienen.

» **Otro debatazo es el tema de la relocalización de empresas.**

Yo apuesto por la relocalización, sobre todo de la industria. Y no solo porque crea que la industria es más estable, sino porque un país no puede depender del turismo y del ladrillo. Hay que reindustrializar España. Una reindustrialización que debe ir acompañada de la transición energética.

Pero esa relocalización tiene una doble cara, porque va a encarecer productos. Hemos vivido 4 décadas,

gracias a la globalización, con una economía Made in China, que es poder comprar barato; precarizaban nuestras vidas pero podíamos seguir consumiendo. Si hacemos un proceso de desglobalización, que es la relocalización de las industrias, eso va a tener consecuencias: un aumento de precios y un descenso de la capacidad de consumo de las clases populares.

» **¿Hasta qué punto la UE es un corsé que impide realizar políticas económicas y fiscales como las que defiendes?**

Efectivamente, la UE es un corsé. No hay más que ver lo que ha costado que permitieran al Gobierno topar el precio del gas. Yo siempre intento hablar desde el posibilismo, teniendo en cuenta dónde estamos. Si por mí fuera, por ejemplo, intervendría muchísimos sectores, crearía empresas públicas o expropiaría las que no son públicas de sectores básicos: un banco público y una energética pública es algo fundamental. Hay que conflictuar con Bruselas sobre la publicación de los sectores básicos. **A**


“Sindikatuena erroka da prekaritate modu berriei egokitzea eta borroka horiek kapitalismo era berrien arabera garatzea; oraingo turbokapitalismoak esplotazio aldaerak azkartzen ditu”.



Entzun, irakurri, ikusi!

GABRIEL ZEBERIO

MUSIKA



“Ruper Ordorika dabilen harria”

Nuevos Medios, 1998.

Ez dute aurtengo Azokan aurkeztuko, aspaldikoa baita. Baina tarteka merezi du apaletan gordeta dauden harribitxiak ostera ere gogora ekartzea, edo interneten bilatzea. Dabilen harria diskoa duela hogeita lau urte plazaratu zuen Ruper Ordorikak. Ia kanta guztiak bere hitzez osatuak: Hemen nago, Nor da?, Beltzarana, Amets gaiztoak ahaztu, Auzo trenean... Baina bada Joseba Sarrionandiak idatzitako pare bat ere: Martin Larralde klasikoa (“honelako egun batez hil zen / galeretan / begiak zabalik etzanda, agian, zerua / itsaso zikin bat dela esanez.” amaitzen da kantu bihurtutako olerkia). Gutunei koblak izenekoak, berriz, denboraren joanari buruzko pasarte ederra dakar: “Ustekabeko xori migrari, iritsi dira gutunak. / Ihazko galdera haienezako, heldu dira erantzunak. / Baina berriro dira haroak, eta zahartu galderak. / Gutuna iritsi baino lehenago, erantzun ditu denborak.”

LIBURUAK



“gu gabe ere”

Itziar Ugarte Irizar. Susa, 2021.

Itziar Ugarte oñatiarra kazetaria dugu, Berria egunkarian egiten du lan. 2021ean argitaratu zuen bere lehen poesia liburua, *gu gabe ere*. Gehienbat olerki laburrak, bere bizitzako pasarteak islatzen dituztenak. Aurreko belaunaldiei begira dago (“nola garai baten azkenak zareten / eta joan ahala zuekin daramazuen / —nirea ez izanagatik, / ni ere egin nauen— mundu bat”), Gerra Zibileko pasarteren bat ere aipatzen du, eta *Egun txikien aroa* izeneko alean esaten duen moduan, “*hizki handien ondotik heldu gara gu*”, (Itoizko solidarioen ekintza, lulen Madariagaren heriotza hizpide), baina bere bidea egin nahi du: “*Egin egiten duzu / ala egiten dizute*”. Beti ere, baikor izan nahiz: “*Nola liteke / dena irabazteko izan / eta dena galtzeko beldur hau*”. Erraz irakurtzen da, baina atzera ere olerkietara itzultzean ñabardura berriak aurkitzen zaizkio liburu eder honi.

IKUSI



“Indésirables”

Erakusketa. San Telmo museoa, Donostia.

Donostiako San Telmo Museoa aldi baterako erakusketa interesgarriak eskaintzen dizkigu; biziki erakargarria izan zen Oteiza eta Chillida aurrez aurre jarri zituena; haren ondoren, urtarrilaren 29ra arte izango da ikusgai *Indésirables: Bonbardaketatik esparrura. Erbesteratzearen ibilbideak*. Indarkeriak eta gerrak eragindako migrazioak, diskriminazio politiko eta arraziala... Erakusketak islatzen du bizi-bizirik dauden auziok nola interpretatu dituzten hainbat artistek: Alexandra Ranner, Bani Abidi, Cristina Lucas, Emily Jacir, Esther Ferrer, Eugenio Ampucia, Iñaki Gracenea, Mona Hatoum... [A](#)

Txantxangorria erdaraz kantari

Euskara sustatu eta zabaltzeko sorturiko ikus-entzunezko erakunde eta tresnarik nagusiena nabarmen aldendu da bere helburutik. EiT Bren sorrerako helburuak gogoratu, eginiko ibilbidea erreparasatu eta egungo gizartea eta ikus-entzunezkoen mundua aintzat hartuta, erakundea bera eta eskaintza osoa birpentsatzeko momentu egokia izan daiteke.

XABIER IRASTORZA

Gure txantxangorriaren DNA deskodetuko balute, euskal herritarren "informazioa jasotzeko, parte hartze politikoa bermatzeko eta hezkuntza sistemarekin batera, euskara eta euskal kultura sutatu eta zabaltzeko ezinbesteko tresna" dela esan beharko luke. Horrela dio behintzat Euskal Irrati Telebista Erakunde Publikoa sortzen zuen 1982ko maiatzaren 20ko legeak. Euskal herritarren "eskubideak eta askatasuna garatu ahal izateko oinarri". Euskara eta euskal kultura sustatzeko xedeari helduz, 3. artikulua erreferentzia zuzena egiten dio gure herrian irrati-telebista eskaintzan dagoen erabateko hizkuntza desorekari, euskararen kaltetan, noski, eta euskarazko programazioak arrakala hori arintzeko balio behar duela.

40 urte igaro dira, legebiltzarraren mandatuia betez, 1982ko azaroaren 23an Euskadi Irratiak bere lehen saioa egin zuenetik

eta urte zaharretan Garaikoetxea lehendakariak ETB estreinatu zuenetik. Irratian 4 hilabete eskas eta telebistan apenas 3 urte egin zituen txantxangorriak euskara hutsez kantari. Izan ere 1983ko maiatzean abiatu zen gaztelania hutsezko programazioa zuen Radio Euskadi eta 1986an ETB2. Geroztik, EiT Bren txantxangorriak erdaldundu duten mutazioak besterik ez ditu izan.

Urruntze honen adierazle da, Pantailak Euskaraz ekimenak salatu berri duen moduan, 1980 eta 90. hamarkadetan Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako haurren %70ek ETB1eko marrazki bizidunak ikusten zituztela eta gaur egun, ETB3k %0,3ko pantaila

En los años 1980 y 90 el 70% de la audiencia infantil veía dibujos animados en euskera. Hoy día ETB3 tiene una cuota de pantalla del 0,3%.

kuota duela. ETBrekin hazi diren belaunaldientzat euskaraz egiten zuten Sandy Bell, Arturo erregea, Arale, Dotakon, Pottokiak, Pac Man edota Dragoi Bola eta Barazki sortako protagonistek. Gaurko haurrei, ordea, gaztelaniaz egiten diete, eta nahi izanez gero baita ingelesez ere, Youtube, Netflix, Amazon Prime, HBO, Movistar+, Disney+, Clan, Boing, Rakuten, Pluto, ATRESplayer, AppleTV edo antzeko beste plataformetan ikusten dituzten *El príncipe dragonek*, *Dino Danak*, *Carmen Sandiegok*, *Pokemonek*, *Sherak*, *Bob Esponjak*, *Ladybugek* edota *Dragones al rescate*, *Los Thundermans*, *El Club de las canguro*, *Madres forzosas* edo *Henry Danger*-eko pertsonaiek.

Izan ere, haurrei euskarazko edukia eskaini nahi dieten familiek badute aukeraren bat 7 urte bitarte, Doraemonen gaindosi bat ekiditen badute, bederen. Baina hortik gorako haurrak umezurtz ditugu beraiek gustuko dituzten marrazki eta serieak euskaraz



Si la calidad de los contenidos es similar, quienes saben euskera eligen programas en euskera; pero ante la diferencia de calidad eligen el contenido que más les gusta, aunque sea en castellano.

ikusteko. Noizean behin bisitan etortzen zaizkie *Goazen* edo *Hasiberriak* telesaileko lagunak, baina bisita besterik ez. Eta ahaztu, noski, euskarazko haur, nerabe eta gazteentzako filmak.

Honetaz kezu da Pantailaldiko Gipuzkoako koordinatzaile loritz Gonzalez: "Ikus-entzunezko oso-oso eduki gutxi dago euskaraz. Harrigarria da duela 20-30 urte baino film gutxiago egotea bikoiztuta, askoz gehiago kontsumitzen ditugunean. Hala da marrazki bizidunekin ere. Kate gehiago daude, gehiago kontsumitzen da, aukera zabalagoa dago, baina euskarazko eskaintza berdin mantendu da edo gutxitu

egin da". Pantailak Euskaraz ekimeneko Izaskun Rekalde eta Alex Aginagalde kezu dira bere garaian diru publikoz bikoizturiko hamarnaka film, telesail eta marrazki bizidun ez daudelako herritarron eskura eta ikusgai.

Pantailak Euskarazko kideek Gasteizko legebiltzarrean emandako datuen arabera euskal herritarron %47k erabiltzen ditugu *streaming* bidezko plataformak, eta 20-24 urte arteko gazteen %75ek. Baina plataforma horietan apenas dago euskarazko filmik. Eta bakar batean ere ezin da ikusi telesailik euskaraz. Gure zinemetan ere egoera dramatiko


da: emanaldi guztien %1 baino ez da euskaraz.

Okertzeko arriskurik gabe esan dezakegu euskal gazteen ikus-entzunezko erreferentziak erdaldunak direla.

Baina arazoa ez dago soilik gazteengan. Esan moduan, herritarron ia erdiak erabiltzen ditugu ikus-entzunezko plataformak eta hor euskararen presentzia hutsaren hurrengoa da. Baina, bestalde, azken hamarkadetan nabarmen jaitsi bada ere, bereziki gazteen artean, gure etxeetan, batez beste, hiru ordu pasatxo ematen ditugu telebistaren aurrean. Eta hor, egoera ez da hobea. Izan ere, Hego Euskal Herrian gehien ikusten diren telebista kateak Euskal Herrikanpo ekoizten diren gaztelaniazko kateak dira, EAEn pantaila kuotaren %87,7 izateraino. Baina Euskal Herrian ekoizten direnen artean ere,



EiTBek erositako ekoizpenak 2021/01 - 2022/10



Iturria: Eusko Legebiltzarra.

gaztelaniazko emisioek, ETB2renak, alegia, hartzen dute pantaila kuotaren %82,1. Guztira, beraz, Euskal Autonomia Erkidegoko telebista pantaila kuotaren %97,8 gaztelaniazko programazioak betetzen du.

Inork izan dezake tentaziorik esateko hizkuntza propioaren patu dela hori. Euskaldun gutxi dagoelako, euskara gai batzuetan jarduteko ez dagoelako horren garatua, gai askoren inguruan euskaraz entzun eta aritzeko ohiturarik ez dagoelako... Azken batean, euskarazko telebista edo programazio batek ezin dezakeela amets egin gaztelaniazkoekin lehiatzearekin edo audientzia esanguratsuak izatearekin. TV3 eta TVGren kasuek, ordea, kontrakoa adierazten dute. Katalanez eta galegoz diharduten bi kateek beraien lurraldeetan ematen dute gainerako kateekin parez pare lehiatzen dute. TV3, modu nabarmenean, Kataluniako telebistatik ikusiena izateraino, %14ko pantaila kuotarekin, eta TVG ere antzera, modu lehiatuagoan bada ere. Gutxituriko berezko hizkuntzan programatzen duten bi telebista hauek, gainera, bereziki datu onak dituzte albistegietan eta gau eta asteburuetakoko *prime time* tarteetan. Oso esanguratsua da aktualitate politiko, ekonomiko, sozial eta kulturala ardatz zuten

TV3 y TVG son líderes de audiencia en Cataluña y Galicia emitiendo en catalán y gallego.

TV3ko FAQs Preguntas Frecuentes bezalako saio batek %15 eta %20 bitarteko audientzia izatea, ordu berean ari ziren gaztelaniazko gainerako programek baina 5-10 puntu gehiago.

EiTBren zuzendaritza: kuku txantxangorriarentzat


Zer gertatzen da orduan ETBekin? Zergatik euskarazko programazioak ditu horren ikusle gutxi? Euskaldunok eta euskal herritarrok, oro har, ez ote dugu telebista euskaraz ikusterik nahi? Edo agian edukiak eta eskaintzen denaren kalitateak du zerikusia?

EHUko Ikus-entzunezko Komunikazio eta Publizitate Saileko zuzendari Josu Amezagaren esanetan, "ETB2k lehia desorekatu egiten dio ETB1i. Kanal batek nagusitasuna du bestearekiko eta gauza batzuk lehenetsi egiten dira, erdarazko programazioaren alde". EHUko irakasleak desoreka horiek ETBk izan duen garapenarekin eta harturiko erabakiekin lotzen ditu. Izan ere, ETB euskaraz jaio zen, baina 1986an ETB2 sortu zuten gaztelania hutsez. Orduan erabaki zen ETB2k gehienbat informatu egingo zuela

baita aisialdiko programak eskaini ere. ETB1ek hurren programazioa eta kirola. Kirolaren bidez ETB1 ia etxe guztietara sartu zen eta hori ez da gutxi. Baina ondoren kanal gehiago sortu ziren gaztelaniaz, ETBk ligako futbol partiden emisio eskubideak galdu zituen. Digitalizazioarekin hurrentzako kanal bereziak eta eskaintza handia sortu zen. Eta ETB1i bere eremua asko murriztu zitzaion. ETB2k, aldiz, informazioa garatzen jarraitu du eta aisialdiko programak eskaintzen. Ondorioz, desoreka etengabe handitzen joan da. Azken 10-15 urteetako kanalen ugartze eta eskaintzaren biderkatzearekin audientzia lehia inoiz baino handiagoa da. Audientzia kuotak asko gutxitu dira. Eta lehia horretan gaztelaniazko kanalaren aldeko apustua egin da, kanal batean, bederen, gutxieneko audientzia bat izateko. Eta euskarazko telebista kaltetua atera da.


Kukuak txantxangorriarekin moduan jokutzen du EiTBko zuzendaritzak ETB1ekin. Txantxangorriaren habian arrautzak errun eta kuku-kumea jaiotzean, txantxangorri-kume guztiak kanporatu.

Telebistako pantaila kuotak EAEn 2021



Telebistako pantaila kuoten eboluzioa

EAEn, TV3 eta TVGrenak



Iturria: Kantamedia.

Albistegiak dira horren adierazle garbiak. Euskarazkoak telebista ikusteko ohiturarik ez edo aukerak mugatuak diren orduetan ematen dira eta, horretaz gain, askoz ere laburragoak dira. Gaztelaniazkoak aldiz, telebistaren aurrean esertzeko orduetan eta denbora luzeagoz pantailaratzen dira. Iaz, gaztelaniazko albistegiak %22,1eko ikusle kuota izan zuten; euskarazkoak, %3,3koa.

Lehia desorekatu horren adibide moduan jartzen du Amezagak, duela pare bat urte, igande gauez, 22:00etan, puntako orduan, gertatutakoa. ETB2k *360 grados* ikerketa kazetaritza saioan *Torturas: el crimen mejor escondido* eskaini zuen. Ordu berean, ETB1en, euskarazko katean audientziarik onenetarikoa izaten zuen *Herri Txiki, Infernu Handi*, batz besteko %4,2ko pantaila kuotarekin 70.000-90.000 pertsona inguruk momenturen batean

ikusten zuena. Torturen inguruko saioak interesa piztu eta saioak bere ibilbideko audientzia daturik onenak izan zituen (momenturen batean 286.000 ikusle eta %11,5eko pantaila kuota). Euskarazko saioak, aldiz, ohiko audientziaren erdia. Zer gertatu zen? Ba, bi kanalen audientziak kulturalki, politiko, soziologikoki oso antzekoak izaki, pentsatzekoa da batak galdutako kuota besteak irabazi zuela. Hau da, ETB2k irabazitakoa ETB1ek galdu zuela.

Gauza bera gertatu izan da larunbat gauetan. ETB2k berriki estreinatutako filmak eskaini izan dituen bitartean, ETB1ek duela urtebete, bi edo hiru urte grabaturiko dantza eta musika emanaldiak eskaini ditu. Gogoan dut ETB1ek grabaturiko bilbainada saio bat eskaintzen zuen larunbat gau horietako batean, TV3 Villarejo komisarioari elkarriketa egiten ari zitzaiola Espainiar Estatuako estolderia, eroskeria eta ustelkeriaren inguruan eta estatuko aparatuek *procés*-ean jokatu zuten paperaren inguruan.

El 56% de quienes ven “El Conquis” hablan euskera y el 80% lo entiende.

Pantailak Euskarazeko kideek salatzen dute azken 7 urtetan ETB1ek ez duela helduen fikziorik bikoiztu euskara, “ez dago munduan beste kasurik, hizkuntza propioa izanik, azken 7 urteetan bere hizkuntzara helduentzako fikziorik itzuli ez duenik”. EiTBri jarraipen zorrotza egiten dion Urtzi Urkizu Berriako kazetariak ere azaleratu du maiatzetik hona ETB2n 130 film gaztelaniaz eskaini dituzten bitartean ETB1ek bakar bat ere ez. Zein da arazoa puntako fikzio serie eta filmak euskarara itzultzeko?

Zer esanik ez ETBren saio izarra den *El Conquis*. Programaren izaera edo egokitasunean sartu gabe, %30 inguruko pantaila kuota du eta 330.000 ikusle baino gehiagok ikusten du momenturen batean. Baina ETB zuzentzen duen inork galdetu ote dio bere buruari zenbat euskal hitzunik ikusten duten? Ba, *El Conquis*-en ikusleen %56 euskal hitzunik omen dira eta %80ak ulertzen omen du euskara. Euskaldunei telebista zerbitzu egokia ez emateaz gain, eskaintzen dituen edukien bidez, ez al da ari ETB ikusle euskaldunak gaztelaniazko katera bideratzen ari? Euskaldunak gaztelaniazko ohituretara bideratzen eta euskalduntzen lagun zitzakeenak gaztelanian finkatzen?

Josu Amezagak dioen moduan, euskaldunek kanal bat edo bestea aukeratzen dute ez hizkuntzagatik, edukiagatik baizik. Edukia gaztelaniaz erakargarriagoa bada gaztelaniara jotzen dute. Hainbat ikerketek azaldu dute egoera diglosiko batean hizkuntza ezberdinen eskaintza parekoa




El 97,8% de la cuota de pantalla en la CAPV es programación en castellano.

bada, hizkuntza gutxituko hizlariek bere hizkuntzaren aldeko aukeraketa egiten dutela. ETBk, ordea, ez du aukera hori ematen. Izan ere, eskaintza erabat desorekatua da, gaztelaniaren alde.

Eredu egokiena den edo ez eztabaidan sartu gabe, irratia egitura eta funtzionamendua bestelakoa da. Hemen ere gaztelaniazko ekoizpenari lehentasuna eman eta baliabide gehiago eskaintzen zaizkion arren, irati bakoitzak bere egitura, zuzendaritza eta programazio politika propioa dute. Modu orekatuan ez bada ere, kanal bakoitzak agente autonomo moduan funtzionatzen du bere audientzia erakartzeko ahaleginean eta horretarako ahalik eta programazio egokiena sortzen saiatzen dira. Bi kateen eskaintza kalitatezkoa da eta ondorioz emaitzak ere oso bestelakoak dira telebistarekin gertatzen denarekin alderatuz.

Euskadi Irratiak eskaintza txukuna egiten du eta entzule kopurua eta audientzia datuak ere kontuan hartzekoak dira (%7,9ko audientzia eta 150.000 entzulek entzuten dute eguneko momenturen batean). Euskarazko beste irati entzunetak, Gazteak, bere hizkuntza politika eta trataerak beste erreportaje baterako emango baluke ere, audientzia eta entzule kopuru onak ditu (%9,2ko audientzia eta 170.000 entzule inguru). Bien artean entzunena den gaztelaniazko Ser irratia pareko entzule kopurua dute, eta EITB taldeko gaztelaniaz aieratzen diren kateek baino entzule gehiago. Telebista eta irratia entzuten dutenen profilak eta ohiturak oso ezberdinak izan arren, non daude egunero momenturen batean irratia euskaraz entzuten duten 300.000tik gorako pertsona horiek edo, nahiago bada, Euskadi Irratia entzuten duten 150.000tik gora telebistaren aurrean jartzeko orduan? Txantxangorria erdaldundu digutelakoan nago.

Egun eduki ezberdinak ikus eta entzuteko ditugun ohiturak, dauden plataforma eta eskaintza ugariak, euskal herritarren hizkuntza ezagutza eta ohiturak eta herritarrak euskalduntzeko dugun premia kontuan hartuta, ezinbestean gure hizkuntza, komunikazio eta ikus-entzunezkoen inguruko politika, estrategia eta tresnak goitik behera birpentsatu beharrean gaude. Euskal agintariak eta euskal komunikazio zerbitzu publikoak ezinbesteko papera dute horretan, baina komunikabide pribatuak ere baldintzatuko dituen legeria eta politikak ere beharrezkoak izango dira.

Bitartean, www.zernonikusi.eus-en *streaming* plataforma ezberdinetan euskaraz aurki daitezkeenekin eta zinemetako estreinaldiekin gozatzeko aukera duzu. 

El reto de una es

En el último estudio lingüístico del Eustat se pone de manifiesto que el 64% de la población de la Comunidad Autónoma del País Vasco es capaz de entender euskera. Gipuzkoa es el territorio con mayor proporción de potenciales *belarriprest*, casi 3 de cada 4 personas. En Bizkaia y Araba, más de la mitad es capaz de entenderlo (58% en Bizkaia y 52% en Araba). En Navarra e Iparralde la situación es diferente. Según la última encuesta de Soziolinguistika Klusterra, 1 de cada 4 personas en Navarra entiende euskera —3 de cada 4 en la zona vascofona— y 1 de cada 3 en Ipar Euskal Herria. Otro dato significativo es que el 54% de las personas que habitualmente ve ETB2 habla euskera y el 72% es capaz de entenderlo.

Estos datos, en un contexto de cambio en los hábitos de acceso a los contenidos audiovisuales y la enorme proliferación de plataformas y productos, nos tienen que hacer repensar completamente la estrategia audiovisual con el fin de responder al espíritu y a los objetivos iniciales de EITB. La realidad, las necesidades y los instrumentos con los que cuenta cada territorio y cada administración son diferentes. Cada cual debería articular su propia estrategia para la consecución de los objetivos pero, sin duda, la CAPV y sus gobiernos tienen mayor responsabilidad, por su realidad, a la hora de crear estructuras e instrumentos que sirvan al conjunto de Euskal Herria.

Son varias las plataformas como (H)itzartu EITB, Netflix Euskaraz, Zinemak Euskaraz o Pantailak Euskaraz que durante los últimos años vienen reclamando a las diferentes administraciones el aumento de la financiación para el sector audiovisual



strategia audiovisual en euskera



Ez al litzateke hobeia euskarazko goi mailako telebista kanal bakarra, euskaraz ongi ulertzen ez dutenentzat azpigitulu edota audio gehigarriekin?

en euskera o la apuesta firme por el doblaje y subtitulación de las principales producciones audiovisuales.

El manifiesto de Pantailak Euskaraz solicita la creación de leyes propias para regular la producción y la emisión de cine y productos audiovisuales en euskera. Una de sus reivindicaciones principales es la creación de una plataforma streaming en euskera con todo lo producido y doblado hasta el momento en euskera y la creación e incorporación de nuevo contenido a la misma. Pero también piden incrementar y garantizar la presencia del euskera en las principales plataformas de *streaming*. O exigir a las cadenas públicas españolas y francesas la emisión de contenidos en euskera.

Y en este contexto, ¿qué papel debe jugar EITB?

Con el actual grado de comprensión del euskera, que se verá incrementado con el paso de los años, y teniendo en cuenta la enorme avalancha de contenido audiovisual en castellano o francés, ¿tiene sentido la división idiomática de los canales o de las emisoras? ¿Acaso no conviene apostar por un único canal de televisión en euskera de gran calidad, con recursos y ayudas como subtítulos o segundos audios en castellano o francés, para quienes tienen dificultad de entender euskera? ¿O acompañar a esta oferta principal en euskera con uno o varios canales temáticos de deporte, infantil, cultura, información, documentales, series y cine... todo ello en euskera con subtítulos o segundos audios?

Un paso importante en esta reflexión y posterior desarrollo y control de la política audiovisual sería la creación de un Consejo de Medios Audiovisuales en cada administración territorial, tal y como vienen reclamando algunas de las citadas iniciativas y diversos agentes, y que existe prácticamente en la totalidad de los países europeos. Un Consejo cuya principal función sería garantizar la transparencia, la equidad, la diversidad cultural, lingüística e ideológica, la calidad de los contenidos y la protección del público. En palabras del catedrático emérito de Comunicación Audiovisual de la UPV/EHU Ramón Zallo: "De esta forma, el espacio vasco de comunicación podría dar respuesta a la obligación de prestar un servicio público y una información adecuada. Los gobiernos no se atreven a tomar medidas contra los medios audiovisuales, y los consejos tienen la capacidad de imponer multas, permiten aplicar la ley."

Para Josep Carles Rius, Presidente del Consell de la Informació de Catalunya, los consejos sirven para garantizar la función social de los medios y su transparencia, "Muchos medios son los representantes de grupos de poder o de interés, y la ciudadanía debe saber quién está detrás". ▲



Azaroak 19an, Hego Euskal Herriko lau hiriburuetan, 15.000 pertsona baino gehiagok egin dute bat aberastasuna banatu eta lan, pensio eta zerbitzu publikoen defentsan antolatuko mobilizazioekin. Deialdiak deitu dituztenen artean, ELA, Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimendua, Euskal Herriko Eskubide Sozialen Karta eta beste hamaika sindikatu eta eragile izan dira.



Aldizkari hau papera eta prozedura jasagarriekin egin da / Esta revista se elabora con papel y procedimientos sostenibles

Frankeo itundua /
Franqueo concertado

nº 08/129 Zk